

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

88/2020 Foru Agindua, ekainaren 19koa, zeinak baimentzen baitu Eva María Díaz Picaza andrea Laudioko Udaleko behin-behineko diruzain izendatzea 2020ko ekainaren 15etik 19ra (biak barne)

Laudioko Udalak atal honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen horren beharra daukala, adierazitako denbora horretan Oscar Fernández de la Roza korporazioko diruzaina ordezkatzeko.

Horregatik, proposatzen da Eva María Díaz Picaza udal horretako karrerako funtzionarioaren behin-behineko izendapena epe horretarako.

Bat etorritz estatu osorako gaikuntza duten toki administrazioiko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan xedatutakoarekin.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa. Lege horrek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, 92.bis artikulua berria sartuz, non zehazten baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Eva María Díaz Picaza andrea Laudioko Udaleko behin-behineko diruzain izendatzea, eginkizun horietan jardun dezan titularra ez dagoen bitartean; alegia, 2020ko ekainaren 15etik 19ra arte (biak barne).

Bigarrena. Izendapenak aurreko apartatuan adierazitako aldi bako bako ez du indarririk.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Laudioko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta agintzea ALHAOn argitara dadila.

Laugarrena. Foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakezu zuzenean Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 19a

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua
IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orekaren zuzendaria
JESUS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA